



Genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostena

Informe de evaluación previa de impacto de género

Foru Arau aurreproiektua, Gipuzkoako zerga ordenamenduan zenbait aldaketa sartzen dituena foru araudia ELGAren barruan adostutako akordioetara eta Europar Batasunetik datozen zenbait zuzentarau eta epaietara egokitzeko

Anteproyecto de Norma Foral por la que se introducen determinadas modificaciones para adaptar el ordenamiento tributario foral a diversos acuerdos alcanzados en el seno de la OCDE así como a Directivas y Sentencias de la Unión Europea

1. Sarrera

Txosten honen helburua da martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko

1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de



orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

2. Arau aldaketak

Foru Arau Proiektu honen xedea da foru zerga antolamenduan neurri

elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada.

2. Modificaciones normativas

El objeto de este Proyecto de Norma Foral es introducir en el



batzuk sartzea. Egin nahi diren aldaketa horiek komunean dutena da, ahalik eta azkarren jarri behar direla indarrean, nazioarteko instantzietatik baitatoz.

Horrela, proposatzen diren aldaketa nagusiak ondorengoak dira, besteak beste:

- Sozietateen gaineko Zergan ezabatu egiten da oinarri ezargarrian dagoen jabetza intelektual edo industrialaren erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren % 5eko murrizketa (37.4 art. 2/2014 Foru Araua)
- Sozietateen gaineko Zergan aldatu egiten dira oinarri ezargarrian dagoen ez integrazioa, jabetza intelektual edo industrial erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagatzearen bidez egindako ustiaketari dagozkion sarrerengatik. %30ko edo %60ko ez integrazio batetik, %70ekora

ordenamiento tributario foral determinadas modificaciones, cuyo componente común es que su entrada en vigor debe realizarse a la mayor brevedad, ya que proceden de instancias internacionales.

Asi, entre otros aspectos, las modificaciones más importantes que se plantean son :

- En el Impuesto sobre Sociedades se elimina la reducción en la base imponible del 5% del precio de adquisición o coste de producción de la propiedad intelectual o industrial (art 37.4 de la Norma Foral 2/2014).
- En el Impuesto sobre Sociedades se modifican los porcentajes de no integración en la base imponible de las rentas correspondientes a la explotación mediante la cesión a terceros del derecho de uso o explotación de la propiedad intelectual o industrial. Pasa de una no integración del 30% o 60% a una



pasazten da. Gainera, egokitu egiten dira ez integrazio hori aplikatzeko baldintzak, egokituz era hobean pizgarri hori bere xedera.

- Sozietateen gaineko Zergan zenbait informazioa herrialdez herrialdeko emateko betebeharra sartzen da, betiere merkataritza talde baten transferentzia prezioen politikan arriskuak ebaluatzeko tresna moduan. Aldaketa hori «BEPS» planaren 13. ekintzaren barruan (transferentzia prezioen berrazterketa) ELGAK hartutako akordioetan oinarritzen da.
- Aseguru Primen gaineko Zergan ezabatu egiten dira beste estatu kide batzuetan helbideratutako aseguru entitateen zerga ordezkariari buruzko aipamenak, Ekonomia Itunak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2014ko abenduaren 11ko Epaiak jasotakoa betetze aldera.

del 70%. Además, se modifican los requisitos para poder acogerse a lo no integración, adecuando de mejor manera ese beneficio fiscal a su objetivo.

- En el Impuesto sobre Sociedades se introduce la obligación de aportar cierta información país por país, como instrumento que permita evaluar los riesgos en la política de precios de transferencia de un grupo mercantil. Esta modificación se realiza en base a los acuerdos alcanzados en la OCDE dentro de la Acción 13 «BEPS», denominada reexaminar la documentación sobre precios de transferencia
- En el Impuesto sobre las Primas de Seguros, se eliminan las referencias al representante fiscal de entidades aseguradoras domiciliadas en otros Estado miembro, en cumplimiento del Concierto Económico y de la Sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 11 de diciembre de 2014.



- Zergen Foru Arau Orokorrean ezartzea, 2014/107/EB Zuzentarauaren ondorioz, Zerga Administrazioak lortutako datu, txosten edo aurrekariak lagatzeko aukera, betiere Europar Batasuneko Zuzenbideak eta antolamendu juridikoan sartzen diren itun eta hitzarmenek jasotako kasuetarako.
- Informaziorako eta bidezko arretarako betebeharrak ezartzea, finantza kontuei dagokienez, Zergen Foru Arau Orokorrean eta elkarren laguntza europarraren eremuan.
- En la Norma Foral General Tributaria se establece la posibilidad de ceder los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en los supuestos previstos en el Derecho de la Unión Europea y en los tratados y acuerdos internacionales que formen parte del ordenamiento jurídico, como consecuencia de la Directiva 2014/107/UE.
- En la Norma Foral General Tributaria y dentro del ámbito de asistencia mutua europea, se establecen unas nuevas obligaciones de información y de diligencia debida para las instituciones financieras, relativas a cuentas financieras.

3. Genero eragina

3.1. Genero egokitasuna

Proiektuaren amaierako hartzaileak, gehienbat, Sozietateen gaineko

3. Impacto de género

3.1. Pertinencia de género

El grupo destinatario final de las medidas de este proyecto son,



Zerga ordaintzera derrigortuta dauden pertsona juridikoak dira.

Enpresak agente ekonomiko benetan garrantzitsuak dira gure lurraldeko sare sozio-ekonomikoan, erabaki garrantzitsuak hartzen dituztelako inbertsio, enplegu sorrera, eta abarri dagokionez.... Hau da, eragina dute pertsonen harreman sozialekin zuzenean lotuta dauden gaietan, haien bizi baldintzetan eta baliabideen eskuragarritasunean (lan baldintzak, soldatak, ingurune fisikoa...).

Hortaz, eta nola xedapen normatiboak eragina duen emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan, ondorioztatzen da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

principalmente, las personas jurídicas obligadas a tributar en el Impuesto sobre Sociedades.

Las empresas son agentes económicos que tienen una especial relevancia dentro del entramado social y económico de nuestro territorio, ya que los mismos son importantes centros de decisión respecto a inversiones, creación de empleo... Es decir, influyen en cuestiones directamente vinculadas a las relaciones sociales de las personas, sus condiciones de vida y acceso a los recursos (condiciones laborales, salarios, entorno físico...).

Por tanto, y como la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.



3.2. Genero eraginaren balorazioa

3.2.1. Hasierako egoera

EUSTATEk egiten duen “Errenta pertsonal eta familiarra”-ren datuen arabera, 2013an Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 15.076 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 24.680 eurokoa (%38,9ko arraila). Laneko errentetan alde handi desberdintasuna %40,8koa da (8.972 euro eta 15.167 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murriztagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %25ak ez du 1.500 eurorik ere irabazten urtean, gizonezkoetan talde hori % 14,1ekoa den bitartean. Emakumeen erdia baino gehiago (%52,5) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %29,1 diren bitartean.

3.2. Valoración del impacto de género

3.2.1. Situación de partida

Según los datos de la “Renta personal y familiar” que elabora el EUSTAT, en 2013 la renta media de las mujeres en Gipuzkoa fue de 15.076 euros y la de los hombres de 24.680 euros (brecha del 38,9%). En las rentas procedentes del trabajo la diferencia es del 40,8% (8.972 euros frente a 15.167, dado el menor acceso a empleo y la discriminación laboral). El 25% de las mujeres de Gipuzkoa no ganaba ni 1.500 euros al año, frente a 14,1% de los hombres. Más de la mitad (52,5%) de las mujeres se concentra en ingresos inferiores a 12.000 euros anuales frente al 29,1% de los hombres.



Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoei baino. Horrela, eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuen arabera (2015eko abendua), emakumeen okupazio tasa %45,4koa da Gipuzkoan, gizonezkoena %55,7koa den bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, emakumeak dira kolektibo horren %47,3 Gipuzkoan.

Era berean, emakumeak dira nagusi diru-sarrerak bermatzeko errentan titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2016ko otsaileko datuen arabera, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (SBE) jasotzen duten pertsonen %56,8 emakumeak dira Gipuzkoan.

Nabarmentzeko modukoa da

En lo referente al mercado de trabajo, a pesar de que la brecha de género en las tasas de paro se ha reducido como resultado del aumento del desempleo en los hombres, a consecuencia de la crisis económica, el paro sigue afectando más a las mujeres que a los hombres. Así, y según los datos de la Población en Relación con la Actividad de EUSTAT, en diciembre 2015, la tasa de ocupación de las mujeres en Gipuzkoa es de 45,4% frente al 55,7% de los hombres. Respecto a la población en situación de desempleo, las mujeres representan en Gipuzkoa el 47,3% de dicho colectivo.

Del mismo modo, las mujeres son mayoría en el colectivo de personas titulares de la renta de garantía de ingresos. Así, y según los datos de Lanbide, en febrero de 2016 el 56,8% de las personas receptoras de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) en Gipuzkoa son mujeres.

Cabe destacar, que los índices de



pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta, 2012" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekaritatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan. Pobreziaren intzidentzia errealak hiru aldiz handiagoak da EAEn, hain zuzen ere, emakume baten ardurapean dauden etxeetan (%11,1 eta %3,7, hurrenez hurren).

2012ko "Pobreziari eta bazterketa sozialari buruzko inkesta" lanak eskainitako datuen arabera, emakume bat buru duten etxeetako pobreziaren intzidentzia askoz handiagoa da Gipuzkoan ere, pertsona nagusi gisa gizonezko bat duten etxeekin konparatuz gero. Izan ere, emakume bat buru duten

pobreza son superiores en los hogares cuya persona principal es una mujer. Según la "Encuesta de pobreza y desigualdades sociales 2012" la pobreza y la precariedad se concentran cada vez más en los grupos tradicionalmente de riesgo. Así, el análisis de la incidencia de las distintas formas de pobreza en función del sexo revela en todos los casos la peor situación comparada de los hogares encabezados por mujeres. La incidencia de la pobreza real en la CAE resulta de hecho tres veces superior en hogares encabezados por una mujer (11,1% frente a 3,7%).

En Gipuzkoa, y según los datos de la "Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa" (2012), la incidencia de la pobreza en aquellos hogares que están encabezados por una mujer es también muy superior a la correspondiente a los hogares que cuentan con un hombre como persona principal. De hecho, aunque



etxeak etxe guztien %29,6 besterik ez diren arren, pobrezia erlatiboko egoeran aurkitzen diren etxe guztien %40,2 eta bazterketa sozial larri nahiz konpentsatuko egoeran aurkitzen diren etxeen %46 izatera iristen dira.

3.2.2. Generoaren ikuspuntutik aintzat hartu beharreko neurrien identifikazioa eta beraien ondorioak

Baliabide ekonomikoen eskuragarritasunean genero desberdintasunak badaudela ageriko gauza denean ere, esan beharra dago, txosten honetan proposatzen diren aldaketek eragin ahalmen oso mugatua dutela baliabideak eskuratzeko aukeretan eta emakumeek eta gizonek haien erabilerari buruz erabakitzeko ahalmenean.

Sozietateen gaineko zergan (aldaketak jabetza intelektual eta industrialaren eskubideen

los hogares encabezados por mujeres representan solo el 29,6% de los hogares, suponen el 40,2% de todos los hogares en situación de pobreza relativa y el 46% de los que se encuentran en situación de exclusión severa o compensada.

3.2.2 Identificación y efecto de las medidas a considerar desde el punto de vista de género

Aún cuando es evidente la existencia de desigualdades de género en relación con el acceso a los recursos económicos, también es cierto que las modificaciones planteadas en el proyecto tienen una capacidad de incidencia muy limitada en lo relativo a las oportunidades de uso de los recursos y toma de decisiones sobre su uso por parte de mujeres y de hombres.

Respecto a las modificaciones propuestas en el Impuesto sobre Sociedades (cambios en la



arautegian; eta herrialdez herrialdeko informazioa emateko betebeharra) eta Zergen Foru Arau Orokorrean (datu lagapena eta informazio betebeharra) proposatutako aldaketei dagokienez, horien helburua da zerga iruzurraren aurkako borrokan balioko duen eta erabilgarria izango den informazioa biltzea.

Aldiz, gainerako aldaketak alderdi formal soilei buruzkoak dira, eta beren helburua da antolamendu juridikoari araugintzako zehaztasun handiagoa ematea, betiere zerga arloko jarduketei eraginkortasun handia eskaintze aldera eta, azken finean, zerga sistema orokorrak hobeto funtzionatze aldera.

Aldaketa guzti horiek nazioarteko erabakietan dute bere funtsa, hau da, EBJAk emandako epai bat, EBk emandako zuzentarauaren transposizioa eta ELGAren hartutako akordioak Gipuzkoako zerga arautegian ezartzea. Hori horrela,

normativa de los derechos de propiedad intelectual e industrial; y obligación de dar información por países) y en la Norma Foral General Tributaria (cesión de datos y obligación de información), su objetivo último es recoger información que sirva y se utilice en la lucha contra el fraude fiscal.

El resto de modificaciones planteadas se refieren a aspectos meramente formales y su objetivo es dotar al ordenamiento jurídico de una mayor precisión normativa, que provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Todas estas modificaciones son fruto de pronunciamientos internacionales, a saber, la ejecución de una Sentencia del TJUE, la trasposición de una Directiva procedente de la Unión Europea y la incorporación al ordenamiento



Aldundi honek aldaketa hauek nazioarteko erabaki horietan adostu diren moduan proposatu besterik ezin du egin, hauen modulazioa ezinezkoa zaiolarik.

3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Aurreko guztia kontuan hartuta, esan dezakegu proiektuak ez dakarrela aldaketa substantiborik genero desberdintasunaren inguruan gaur dagoen egoera aldarazteko.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu egin dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomi Ituanren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorra ezarritako terminologia eta kontzeptu

jurídico tributario de los acuerdos alcanzados en el seno del OCDE. Así pues, esta Diputación no puede sino proponer estas modificaciones en los términos acordados, de forma que no resulta posible su modulación.

3.2.3 Valoración del impacto de género

Teniendo en cuenta todo lo anterior, podemos considerar que el proyecto no incorpora cambios sustantivos que puedan contribuir a una modificación de la situación actual respecto de las desigualdades de género.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado ni aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos



berean errespetatu behar direnak.
Eta bestalde, ordenamendu
juridikoko beste arau batzuetan
espresuki zehaztuta daudelako
errespetatu behar direnak.

en la Ley General Tributaria, ni
aquellos otros que deban respetarse
por estar expresamente definidos en
otras normas del ordenamiento
jurídico.

Donostia, 2016ko apirilaren 27a

San Sebastián, a 27 de abril de 2016

Sin./Fir.: AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS